

Portugal gurea

Felipe Juaristi

"Lisboako setloaren historia"
Jose Saramago
euskaratzailea: Jon Alonso
Ibaizabal, 1999

Euskarara itzuli diren lan gutxik lortu dute, nik dakidala, Saramagoren honen (edo Jon Alonsoren honen, berdin baita) besteko arrakasta. Beti esan ohi da itzulpenak, lur batetik bestera birlandatua izan den zuhaixkak bezala, ez duela gure artean indarrik; hala ere itzulpen batzuk, bultzada haundikoak ez ezik, besteentzat eredugarri ere izan direla uste dut. Buruan dauzkat horietako batzuk: Berrondoren "Kixote", Orixeren "Mireio", Juan Garziaren "Shakespeare". Bat edo beste kanpoan utziko nituen, baina horiek dira gogoan ditudanak. Saramagoren honi lagundu egin dio liburuaren aurkezpenean idazle portugaldarra Bilbon egon izanak. Gainera, oso hitz politak esan zituen itzulpenari buruz, eta hori ez da txantxetan hartzekoa. Benazko itzulpena iruditu zait niri, tonu eta doinu ederrekoa, giro egokikoa, behar bezalakoa alegia. Liburua jatorriz ez da irakurtzen erraza, baina Saramagok ez daki liburu irakurterrazak idazten, eta hori bere alde da. Esaldiak bihurtzeko, estiloa barrokiaren mugetara eramateko joera du, eta ez alferrik. Saramagok ongi ezagutzen duenez Errenazimenduko erretorika, hura hartzen du oinarritzat liburuan. Konplikazioa ez dator hitzetatik, beraz; gertatzen da gure gaurko erretorikabideak eta garai bateko portugaldarrenak oso urruti aurkitzen direla, batzuk eta besteak. Euskaraz, jatorriz baino piska bat errazago irakurtzen da eta hori itzultzailearen alde da. Baina badago lana; esan nahi dut gure erretorikabideak eta Saramagorenak bat egiteko saioa ongi planteiaturik eta buruturik dagoela. Jon Alonsok sarreran esaten digu nola irakurri liburu hau. Bereak gomendioak direla jakinik —hala dio behintzat, gomendiorik onartuko ez duena dela irakurlerik onena—, ontzat hartu beharrekoak dira. Itzultzaileak maitasunez eginikoak baitira.

El Diario Vasco, 2000-03-04